

VI. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Jainko gure Jauna,
 bihotz garbi eta zintzoetan duzu zeure atsegina;
 egizu, zure grazian bizi gaitezela,
 Zu gure bihotzetan bizi zaitezen.
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Leb 13, 1-2. 44-46

*Bakarrik biziko da legenarduna,
 oihal txaboletatik urruti.*

Lebitarren liburutik

Jauna honela mintzatu zitzaien Moisesi eta Aaroni: «Bere larruazalean inori haunditurik, kozkorrik edo zuri unerik sortzen bazaio, edota norbaiti larruan legenarrik agertzen bazaio, eraman bezate Aaron apaizarengana edo haren semeetako apaiz batengana. Legenardun bat da; gizaki lohia. Buruan legenarrak joa dagoen gizaki lohia dela aitortuko du apaizak.

Apaizaren aitormenez legenarduntzat emana izan denak, soineko urratuak erabiliko ditu, buruko ilea nahasia eta kokotza goiko ezpainetaraino estalia: eta "gizaki lohia!, gizaki lohia!" oihu egingo du. Legenarrak irauten dion arte, gizaki lohia izango da. Bakarrik biziko da; eta oihal txaboletatik urruti izango du bere bizilekua».

ERANTZUN SALMOA: Sal 31, 1-2. 5. 11

R/. **Zu zaitut ihesleku,
 askatasun pozez inguratzen nauzu.**

Bai dohatsu, gaiztakeria barkatu zaiona,
 hobena estali zaiona.
 Bai dohatsu, Jaunak errurik egozten ez diona,
 barrenean iruzurrik ez duena. R/.

Nire hobena aitortu dizut,
 nire errua ezkutatu ez dizut.
 «Aitortuko diot —esan nuen— Jaunari neure gaiztakeria»,
 eta Zuk barkatu zenidan nire hobenaren txarkeria. R/.

Poztu zaitezte eta alaitu Jaunagan, zintzoak,
egizue pozez oihu, bihotz zuzeneko guztiak. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 10, 31–11, 1

*Izan zaitezte nire antzeko,
ni Kristoren antzeko naizen bezala.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzuelarik, egizue dena Jaungoikoaren aintzarako. Ez eman gaizbiderik, ez judutarrei, ez greziarrei, ez Jaungoikoaren Elizari.

Nik ere neure aldetik guztiei ematen diet atsegin, ez neure onari begira, haienari baizik, guztiak salba daitezen. Izan zaitezte nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

EBANJELIOA: Mk 1, 40-45

Aleluia: Lk 7, 16

R/. Aleluia.

V/. Profeta haundi bat agertu da gure artean.
Jaungoikoak ikustaldi egin dio bere herriari. R/.

Utzi zuen leprak, eta garbi gelditu zen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, legenardun bat etorri zitzaion Jesusi, eta, belaunikaturik, esan zion: «Nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek, errukiturik, eskua ezarri zion eta ukitu egin zuen, esanez: «Nahi dut; garbi geldi zaitez». Orduan bertan utzi zuen leprak, eta garbi gelditu zen.

Jesusek bidali zuen, zorrotz esanez: «Begira, gero, inori ezer esan! Baina zoaz, agertu apaizarengana eta eskain ezazu zure garbikuntzagatik Moisesek agindu zuena, ageri bat izan dezaten».

Hura, ordea, atera zeneko, gertatua oihuka hotsegiten hasi zen eta zabaltzen; eta harrez gero Jesus ez zitekeen agerian sartu herrietan; baizik eta inguruetan gelditzen zen leku baztertuetan. Eta hala ere alde guztietatik zetozkion.

Oparigaien gainekoa

Eukaristia honek, Jauna, garbi gaitzala eta berritu;
eta zure nahia betetzen dutenentzat

izan dadila betiko sariaren iturri.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Zeruko ogia eman diguzu janari, Jauna;
egizu, egiazko biziaren iturriak bila ditzagula beti.
Jesu Kristo.